


**SENDAGILEEN ELKARGOAREN EGOITZA  
C MAILA****FRANTZIA PASEALEKUA 12****Egilea eta data: Luis Elizalde; 1912.****Deskribapena.**

Gaur egun Sendagileen Elkargoaren egoitza dagoen eta, azken oinean, etxebizitzak dituen antzinako Lizeo Frantsesak, eraikina etxadi buru gisa kokatua zegoela aprobetxatuz, sarrera nagusia Norteko Geltokirantz begira dagoen fatxadan ipini zuen. Hasieran ikasgelategia hotel frantsesaren tipologiara egokitu zen, mantsarda batekin errematatutako bolumen trinkoko jauregitxo bakartu gisa. Jatorrizko irudia gordetzen du ezohiko adreiluzko fatxadarekin. Hala ere barrualdea bulegoak jartzeko eraldatu zuten. Geltokiaren eta Santa Katalina zubiaren artean 1912. urtetik aurrera eraikitako jauregi itxurako eraikin bateratuen multzoaren barruan kokatzen da. Multzoa osatzen duten zazpi eraikinak bakartuak dira, sarrera pasealekutik dute eta lorategi pribatuz inguratuak daude. Etxearen jabetza etxebizitzetan banaturik dagoenean, lorategi pribatu horiek behe oineko edo bastardeko etxebizitzetan jabeenak dira. Harlanduzko oinarrien gainean lursailen burdinazko itxiturek multzoaren batasuna gordetzen dute diseinu diferentekoak izan arren. Fatxada 2006an konpondu zuten.

**Babes erregimena.**

- 1.- Babesteko erregimen orokorra.  
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
  - A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak: arotzeriak eta pertsianak.
  - B.- Babesaren xede diren elementu iraunkorrak: harlanduzko elementuak; bistako adreiluzko hormatalak; lorategiaren itxitura.  
Dena den, lorategiaren itxitura horiek desmuntatu eta berriro eraiki daitezke, sarbideak ireki daitezke, eta lursail eta eraikuntza horien erabilerei loturiko premiengatik justifikatutako aldaketa mugatuak egin daitezke. Dena den, kasu horietan guztietan egin daitezkeen proposamenek lorategiak gaur egun dituen itxitura soluzioak errespetatu eta imitatu beharko dituzte. Proposatutako lanak baimenduko dira aurretik aipaturiko helburu hori behar bezala betetzen badute, eta hala egingo denaren bermeak zehaztu ondoren.
  - C.- Handitzeko edo aldatzeko murrizketa partikularrak: "Frantzia Pasealekua" E mailako multzo katalogatuaren barruan egotearen ondoriozkoak; oin bateko mantsarda mantenduko da; ez dira jasodurak baimentzen.
  - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.